

ZENTROKO LANGILEAK

- **Arduraduna:** M^a Eugenia Merino
- **Unitateko Arduradunak:** Chus Prieto, Marian Martínez eta Puri Cazón .
- **Zentroko Medikua:** Iñaki Mugika Dk.
- **Fisioterapeuta:** Mónica Carpio
- **Tailerreko burua:** Roberto Bilbao
- **Erizaina:** Beatriz Mojedano
- **Gobernantak:** Virginia Merino, Yolanda Gallego eta Rakel Hernandez
- **Zuzeneko arretako langileak:** etxe bakoitzean bi zaintzaile daude txandako, eta langile batzuek aste barruan eta besteek asteburu eta jai-egunetan lan egiten dute.
- **Gaueko langileak:** hiru langile daude txandako, gaueko bi txandetan, eta logeletan mugimendu edo soinuren bat gertatzen denean hori detektatzen duen sistema batek laguntzen die.
- **Otordu-zerbitzua:** bazkariak eta afariak zentroko sukaldean bertako langileek eginak dira
- **Gureakeko langileen esku dago garbiketa, jostintza, mantentze-lanak eta arropa garbitzea.**



Zubieta Zentroa



ULIAZPI | 

Helbidea: Jaizubia 1 zk.

20240 Hondarribia

Zubieta Zentroak 6 etxebizitza ditu eta horietako bakoitzak 12 lagunentzako lekua du, bertan 71 lagun bizi dira eta erre-serba-leku bat dago atsedeen-zerbitzuarentzat. Eguneko zentroaren zerbitzu bat ere badu eta lagun-talde bat joaten da bertara 10:00etatik 17:30era jarduera desberdinetan parte hartzera: Motrizitatea, esku-lanak,... Horiek guztiak eraikin batean daude eta eraikin horretan bertan daude fisioterapia eta zentroko igerilekua ere.

Igerilekutik hurbil Eguneko Zentroa dago eta bertan jarduera desberdinak egiten dira.

Bulego-gune bat ere badugu, eta baita sendaketa-gela, sukaldea eta arropa-garbitegia ere.

Berotegi bat era badugu, baratze txiki batekin.

Zentroaren inguruan lorategiak eta aisialdirako guneak ditugu, eta horiez gain baita Plaiiaundi Parke Naturalerako irtenbide bat ere.



JARDUERAK

Egunero, bai goizez eta bai arratsaldez, hainbat jarduera desberdin egiten dira, zentro barruan nahiz kanpoan, horietako batzuk teknikari baten laguntzarekin eta besteak bertako langileekin.

- Zentro barruan, besteak beste, jarduera hauek egiten dira: igerilekua, Musikoterapia, Estimulazio Sentsoriala, Komunikazioa, Lan Okupazionalak, Eskulanak, Gorputz Zainketak, Ikus-entzunezkoak, Motrizitatea...
- Kanpoko jardueren artean hauek leudeke: Igerilekua (Hondarribiko kiroldegian), Kirol Egokitua (Irungo Sarylen gimnasioan), Hipika (Jaizubia zalditokian), irteerak zerbait hartzera, jatetxe batean bazkaltzera, ile-apaindegira, txangoak...